REVISTA DE MEDIO AMBIENTE

BIZKAIA MAITEA

nº 3/96

LA GESTIÓN DE LOS R.S.U. EN BIZKAIA

Lakandona oihanaren aldeko requiema

Un planeta con fiebre

Desechos muy valiosos

Lehen kondenatuta, orain babestuta

HAURRENTZAKO KOADERNOA

abendua DICIEMBRE 96

ARGITARATZAILEA/EDITA
Bizkaiko Foru Aldundia
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Saila

Diputación Foral de Bizkaia/ Departamento de Medio Ambiente y Acción Territorial

Bizkaia Maitea. Alda. de Recalde, 30
48009 Bilbao. Tel. 420 77 00
Aptdo. de Correos 53. Bilbao

ARGITARATZAILE ORDEZKOA/ /EDITOR DELEGADO
U.T.E. Iniciativas Ambientales y RALI, S.A.

ZUZENDARITZA ETA ERREALIZAZIOA/ /DIRECCIÓN Y REALIZACIÓN
Iniciativas Ambientales

ERREDAKZIO-BURUAK/ /REDACTORES JEFE
Juan Carlos Barrios / Xabier Bañuelos

DISEINUA ETA MAKETAZIOA/ /DISEÑO Y MAQUETACIÓN
Paloma Seoane Cifre

ILUSTRAZIOAK/ILUSTRACIONES
Juan Sánchez

ARGAZKIAK /FOTOGRAFÍAS
Aixerreku - Arrazola - Bañuelos - Faus - Hormaeche

EUSKARAZKO AHOLKULARIA / /ASESORÍA DE EUSKERA
Jose Morales

FOTOMEKANIKA /FOTOMECÁNICA
Tratex, S.L.

INPRIMATEGIA /IMPRENTA
RALI, S.A.

Lege-gordailua /Depósito legal: BI-733-96

I.S.S.N.: 1136-4246

Aldizkarian azaldutako iritziak artikuluen egileenak dira, eta ez dituzte halabeharrez editorearen ideiak adierazten.

Las opiniones expuestas en la revista, son de los autores de los artículos y no expresan forzosamente las ideas de quien la edita.

PAPER EKOLOGIKOA/PAPEL ECOLÓGICO

LABURPENA

4
LAKANDONA
OIHANAREN ALDEKO REQUIEMA

7

UN PLANETA CON FIEBRE

10

LA PROBLEMÁTICA DE LOS RESIDUOS SÓLIDOS URBANOS

13
LEHEN KONDENATUTA, ORAIN BABESTUTA

15

HAURRENTZAKO KOADERNOA

23
LA GESTIÓN DE LOS R.S.U. EN BIZKAIA

26

"GIRO ONEKO" LANAK

28
DESECHOS MUY VALIOSOS

31
NOTICIAS BREVES E INTERESANTES

32
BRICOLAJE ECOLÓGICO
Erostean, zentzuz eta berde jokatu

34
EL BUZÓN

SUMARIO

Orokorrean eta, bereziki, etxean sortzen ditugun hondakinek oso ondo erakusten dute gure gizarteak nola eboluzionatu duen mende honetan. Beti ekoiztu ditugu hondakinak; orain, ordea, hondakin asko sortu eta oso gutxi birziklatzen ditugu, eta horrek ekarritako arazoak inoiz baino larriagoak dira: airearen, uraren eta lurzoruaren kutsadura.

Hobeto optimizatu behar ditugu geure baliabideak, eta zarama, egungo aurrerapen teknologikoei esker, garrantzizko baliabidea da. Berriro erabil daitezkeen produktuak eta birzikla daitezkeen hondakinak hobeto aprobetxatuko bagenitu, baliabide berri asko izango genituzke. Horren ondorioz, zaramaren bolumena gutxitu eta lehengaiak eta energia aurreztuko genituzke.

Bide horretatik jo nahi dugu. Gaur egun, Europan, zaramaren %8 inguru gaika bildu eta birziklatu egiten da. 2000. urtea baino lehen, portzentaia hori gainditu nahi dugu. Eta hori lortzeko, bat eginik lan egin behar dugu denok: herritarrek eta administrazioak.

Gure zaramaren egungo arazoa konponduko badugu, berriro erabili behar ditugu gauzak, eta ahal beste birziklatu. Baina, horrekin batera, hondakin gutxiago sortu eta balio energetiko handiagoa eman behar diegu. Horren beharraz garaiz jabetu ezean, zaramak jan egingo gaitu.

eskutiza

La producción de residuos en general, y de los domésticos en particular, es una de las realidades que mejor definen cómo ha evolucionado nuestra sociedad en este siglo. Siempre hemos generado residuos; lo que sucede es que nunca como ahora los problemas originados por el elevado nivel de producción y el escaso reciclaje han sido tan importantes: contaminación del aire, del agua y de los suelos.

Hemos de optimizar mejor nuestros recursos, y la basura, con los avances tecnológicos actuales, es sin duda un importante recurso. Si aprovecháramos más los productos reutilizables y los residuos reciclables, tendríamos una gran cantidad de nuevos recursos, con lo que ello supone de reducción del volumen de la basura y ahorro de materias primas y energía.

Queremos progresar en esta línea. Queremos superar los porcentajes actuales de la media europea en recogida selectiva y reciclaje, situados en torno al 8%, antes del año 2000. Y en esta labor debemos trabajar unidos todas y todos: ciudadanos y administración.

Junto a la reutilización y el máximo reciclaje, la reducción de la cantidad de residuos que generamos y su revalorización energética conforman las otras dos actuaciones complementarias para solucionar el problema actual originado por nuestras basuras. O nos mentalizamos a tiempo o nos come la basura.

carta

Mª Esther Solabarrieta Aznar
Ingurugiro eta Lurralde Ekintzako Foru Diputatua
Diputada Foral de Medio Ambiente y Acción Territorial

Lakandona oihanaren aldeko requiema

Lakandona oihana arriskuan dago. Maien tradizioaren arabera, handik iritsiko dira artozko gizon-emakumeak, egiazko gizon--emakumeak. Baina litekeena da luze gabe oihan hori desagertzea.

Lakandona hainbat animali espezieren azken gordelekua da.

Xabier Bañuelos

Estatistikak argi mintzatzen dira, eta kontu tristeak esaten dituzte: bi hamarkadatan, Lakandona oihanak zituen 1,2 milioi hektareen erdiak baino gehiago desagertu egin dira. Hondamenak erritmo horri eutsiz gero, Mexikoko hegoekialdeko oihan tropikalaren 11.000 urteak erreferentzia bibliografiko hutsa izatera irits daitezke hastear dagoen hurrengo milurtekoaren lehen mende-laurdena amaitu aurretik.

Gaur egun, Lakandona oihanak 600.000 hektarea inguru ditu. Usumacinta ibaiaren alde banatan hedatzen da, Chiapasko hegoekialdean, Mexiko eta Guatemalaren arteko mugan. Ertamerikan antzinako euri-oihanetik edo baso tropikal hezetik geratzen diren aztarna bakanetako bat da.

Inskripzioen tenplua. Palenqueko aurriak.

Bi hamarkadatan oihanaren erdia baino gehiago desagertu da.

Maien zibilizazio desagertuaren erdigunean dago. Oraindik ere, Yaxchilan, Bonampak eta beste hiri zahar batzuen aurri miragarriak ditu gorderik bere landare hostotsuen artean. Gainera, bioaniztasun handiko lekua da. 450 mila intsektu espezie baino gehiago dago, 150 zuhaitz espezietik gora hektareako, eta endemikoak diren edo desagertzeko arriskuan dauden espezie asko, hala nola jaguarra, ozelotea, tximino armiarma, nauyaca sugea, guakamaioa, tapirra... Animalia horiek guztiek Lakandona oihana dute azken gordelekuetako bat.

Lakandonak, baso tropikala izanik, ekarpen generiko ugari egiten dizkio ingurugiroari: oreka klimatikoari eustea, desertifikazioa gelditzea... Gainera, zentzuz jokatuz gero gizakiak iraunkorki erabil litzakeen baliabide asko ditu. Hango zuhaitzen %74 baliagarriak zaizkigu gauza askotarako: zura ateratzeko, sendagaiak edo elikagaiak egiteko...

Lakandona, beste edozein euri-oihan bezala, ekosistema heldua da, konplexua eta oso egonkorra hondamendi naturalen aurrean. Hala ere, ikaragarri hauskorra da hondeamakinez armaturik gizakiek egiten dizkioten ustekabeko erasoen aurrean. Eta horixe du historia orain dela ehun eta hirurogei urtetik.

Hondamenezko historia

Tzeltal indigenen Roberto Barrios komunitatea Palenque hiritik ordubetera dago, kamionetaz joanda. Hiri izugarri itsusi horrek Mexiko osoko multzo arkeologikorik ederrenetakoa eta harrigarrienetakoa du hurbil: Palenqueko polis maia handiaren aurriak.

Komunitatearen arduradunetako batek Teodoro zuen izena. Arratsalde batean, eguzkia, euria eta gaztain egosiak hizpide berarekin solasean ari ginela, kontatu zigun komunitateak berrogeita hamar urte besterik ez zuela eta Chiapasen iparraldetik iritsitako kolonoek sortu zutela. "¿Selva? -esan zigun-. Hace mucho que ya no hay. Según iban llegando los ejidatarios iban tumbando los árboles para poner milpas (baratzeak) de maíz y frijol. Hoy, ya ven, no más queda tantito".

Hala ere, ez zen hori izan Lakandona oihanaren espoliazioaren hasiera. 1822an hasi zen dena. Garai hartan, Cayetano Ramón Robles izeneko bati bururatu zitzaion zur bitxiak ateratzea bide polita izan zitekeela masa berde "antzu" hura errentagarri bihurtzeko. Harrezkeroztik gero eta gehiago ustiatu zituzten Lakandonako kaoba eta zedroa Europako eta Estatu Batuetako aretoak janzteko. Mende honen erdialdean zur-industriak gainbehera egin zuenean, kolonoek bete zuten haren tokia. Miseriak eta etxalde handietan jasaten zuten esplotazioak estututa eta gobernuak berak akuilatuta, milaka lagun, indigenak gehienak, oihanean sartzen hasi ziren lur-puska baten bila. Eta basoa soiltzeari ekin zioten bertan

Livingstone mendizerra.

Indigenak egurketan milparen ondoan.

Oihanaren barruko komunitate indigena.

beren haziak ereiteko. Ondoren, abeltzainak elkartu zitzaizkien, eraispen-talde ikaragarria osatuz.

Zalantzazko etorkizuna

Oihanetik geratzen den parte bat Montes Azules Biosferaren Erreserba izendatzea galeriarentzat egindako keinu laudagarria izan zen, ingurua babesteko bide eraginkor baten hasiera baino gehiago. Izan ere, azken urteotan arrisku larriagoak agertu dira. Oihaneko sustraien azpian aurkitutako petrolioak ez du ezer onik iragartzen. Litekeena da urte asko baino lehen oliobide erraldoi eta dotore batek oihana zeharkatzea Mexikoko golkoraino. Bestetik, Chiapas zeharkatzen duten ibai emaritsu eta biziak eutsi ezinezko tentazioa dira hidroelektrikoentzat. Dagoeneko begiz jo dituzte Jataté, Usumacinta eta beste ibai batzuk.

Ondoren, turismoa dago. Arestian, berriro aurkitu dute Maien Bidea, eta turistak milaka inguratzen dira tximeleten antzera aurriz aurri ibiltzeko eta, ahal izanez gero, oihanean sartu-irten bat egiteko.

Oihanean oso paisaje ederrak daude.

Eta, azkenik, Armada Zapatistaren eta Mexikoko Armadaren arteko gatazkak kalte handia egin diezaioke ingurugiroari.▲

LACAM-TUN, HAITZ HANDIA

Karibe izeneko indigenek, Lakandona oihaneko jatorrizko biztanleek, “Lacam-Tun” (Haitz Handia euskaraz) deitzen zioten Miramar aintzirako uharte nagusiari. Espainiarrek, izen indigena apur bat aldatuta, “lacandón” hitza erabili zuten lurraldea, biztanleak eta hizkuntza izendatzeko (euskaraz “lakandon”). Lakandonak Chiapasko azken indigena libreak zirela esan daiteke. Hasieran espainiarrek ez zituzten menperatu, baina gerora ia erabat suntsitu zituzten. Ondoren, lankandonak oihanean gorde ziren eta hainbat mendetan ez zuten inolako harremanik izan Chiapasko gainerako biztanleekin. Gaur egun, 400 edo 500 lakandon besterik ez da geratzen. Akulturizaturik daude eta galtzear dute bizimodu tradizionala.

Un planeta con fiebre

En una época en la que residimos en viviendas con aire acondicionado y comemos alimentos frescos producidos a miles de km. de distancia, es fácil olvidar nuestra dependencia del clima

Ibon Hormaeche

Entre los compromisos sobre el clima alcanzados en la pasada Cumbre de la Tierra de 1992, cabe destacar la lucha contra la contaminación y contra el incremento del efecto invernadero (gráfico 2). Los síntomas de que la Tierra está enferma son alarmantes: desertización, subida del nivel del mar, alteración de cosechas, cambio climático, etc.

El aumento de la temperatura no sólo afecta al desarrollo económico y a la estructura social futura del planeta sino también a la salud de los ciudadanos de muchos países. Así, un estudio reciente de la Organización Mundial de la Salud revela que el recalentamiento global de la Tierra facilitará la propagación de enfermedades infecciosas.

Barómetro del cambio climático

El compromiso de los países industrializados es reducir de aquí al año 2000 sus emisiones de gases de efecto invernadero al nivel de 1990, pero parece claro que la mayoría de ellos no va a cumplir esta premisa. En 1995, la concentración de CO_2 en la atmósfera había llegado a 360 partes por millón (ppm), la mayor de los últimos 150.000 años.

Disponemos de indicios de la expansión térmica que tiene lugar con el calentamiento:

* el calentamiento de la Antártida en las últimas décadas;
* el clima de Siberia alcanza actualmente sus valores más cálidos desde la Edad Media; el norte de Europa, mientras tanto, ha experimentado una serie de inviernos templados y rigurosas tormentas invernales;
* la retirada de los glaciares alpinos;
* elevación del nivel del mar en 3 mm. en los últimos tres años.

Tales pruebas convencieron al Panel Intergubernamental sobre Cambio Climático (IPCC) de la ONU, para concluir que es improbable que los recientes cambios en las tendencias climáticas globales "se deban por entero a causas naturales". Su evaluación proyecta una elevación de la temperatura media global de entre 0,8 y 3,5 ºC para el año 2100. En esta proyección el incremento, incluso en su extremo inferior, es más rápido que cualquier aumento experimentado desde el nacimiento de la civilización humana.

¿Avanzamos en dirección equivocada?

La quema de combustibles fósiles emite unos 6.000 millones de toneladas de carbono a la atmósfera cada año, añadiendo anualmente 3.000 mill. de Tn. Para que el clima de la Tierra recupere el equilibrio en los próximos siglos, las emisiones de carbono deberían reducirse hasta una tasa que permita su absorción por los mares y los bosques, es decir, entre 1.000 y 2.000 millones de toneladas al año, equivalente a un 80% por debajo de la tasa actual.

Si este es el objetivo, los acontecimientos recientes son desalentadores (tabla). La tasa de crecimiento de las emisiones de carbono globales continúa siendo superior al 2% anual (gráfico 1), siguiendo una tendencia que avanza peligrosamente en dirección equivocada.

La solución milagrosa no existe

En sus conclusiones, el IPCC insta a los gobiernos a que actúen para reducir las emisiones de CO_2 a partir de una serie de propuestas técnicas y políticas. Entre otras, menciona la necesidad de aumentar el peso de las fuentes energéticas alternativas,

Tabla

Aumento porcentual (%) en el periodo 1990-1994, de las emisiones de carbono causadas por los combustibles fósiles en los 15 primeros emisores

	Aumento (%) emisiones 1990-1994
Estados Unidos	4, 4
China	13, 0
Rusia	-24, 1
Japón	0, 1
Alemania	-9, 9
India	23, 5
Reino Unido	-0, 3
Ucrania	-43, 5
Canadá	5, 3
Italia	0, 8
Francia	-3, 2
Polonia	-4, 5
Corea del Sur	43, 7
México	7, 1
Sudáfrica	9, 1

Fuente: La situación del mundo 1996, pág. 67.

El uso de combustibles fósiles es una de las principales fuentes de CO_2.

Gráfico 1

Emisiones mundiales de carbono por la quema de combustibles fósiles, por regiones económicas, 1950-1994



Fuente: La situación del mundo 1996, pág. 66

e insiste en la importancia del paso del carbón al gasoil y de éste al gas natural a fin de reducir las emisiones.

Pero la primera medida sigue siendo la reducción del consumo de combustibles utilizados, sobre todo, en calefacciones y automóviles. El IPCC recomienda reducir el tamaño de los vehículos y mejorar su rendimiento, así como el de las calefacciones. El diseño de coches más aerodinámicos y ligeros, o de edificios más herméticos y termoeconómicos, marcan líneas de acción sobre un problema en el que las responsabilidades mayores corresponden a los países industrializados.

El IPCC considera posible incrementar, sin coste, entre un 10% y un 30% el rendimiento del consumo energético. La definición de niveles mínimos de rendimiento o la creación de impuestos sobre el carbón y el consumo energético son algunas de las medidas políticas consideradas, asimismo, entre las conclusiones del panel.▲

Las variaciones en el clima son perceptibles desde hace varios años.

El clima es un factor fundamental en el equilibrio del planeta.

Gráfico 2
El efecto invernadero y sus consecuencias para el siglo XXI

Fuente: El Correo Español-El Pueblo Vasco



La problemática de los Residuos

El problema de los residuos urbanos tiene cada vez mayor presencia en la sociedad. Problemas como el del vertedero de Bens en La Coruña lo han avivado en los últimos tiempos. Para analizar sus orígenes y la problemática que entraña en una sociedad de consumo como la nuestra, BIZKAIA MAITEA se ha acercado a dos periodistas especializados para pedirles su opinión e ilustrarnos un poco en esta materia. Manuel Toharia y Julen Rekondo responden a las preguntas que les hemos planteado.

JULEN REKONDO

R 1: Los R.S.U. han sufrido una evolución importante en los últimos años en dos aspectos: el incremento en su generación, más de 1 Kg. por habitante y día cuando en sociedades anteriores, como podría ser la sociedad rural vasca de principios de siglo, se generaban menos residuos, y con el agravante de que ahora los envases y embalajes suponen 1/3 de la bolsa de la basura y, además, son muy complejos y presentan problemas para su reciclaje; el otro aspecto es que en épocas anteriores parte de la basura se podía reutilizar, como la materia orgánica, para dar de comer a los animales o hacer abono. Ahora el problema es complejo e importante. Cada vez se genera más, vivimos en la sociedad del despilfarro. Hay más problemas para su eliminación y tratamiento. No tenemos en cuenta que en el planeta Tierra los recursos son limitados. Es como si existiera un segundo planeta Tierra al que pudiéramos desplazarnos una vez que éste hubiese entrado en una crisis ecológica absoluta. Una alternativa sería generar menos basura, aunque esto es difícil en una economía de mercado que fomenta la no reutilización de los productos.

R 2: La política de los 20 ó 30 años anteriores era amontonar la basura sin pensar en la cantidad de materia prima que se puede reutilizar o reciclar. Teniendo en cuenta que el planeta Tierra tiene recursos limitados en cuanto a materias primas,

pasa pág 12 columna izq.

Sólidos Urbanos

P 1: ¿Cómo definiría en general el problema de los residuos sólidos urbanos (R.S.U.)? ¿Cree que es un problema inherente a nuestra sociedad?

P 2: ¿Cuáles son los principales problemas que podríamos señalar en relación a la producción de R.S.U.?

P 3: La producción de R.S.U. por habitante en países como Estados Unidos o Alemania es superior a la nuestra. ¿Cree que la mayor producción de R.S.U. es un síntoma de mayor desarrollo y mejor calidad de vida?

P 4: La Unión Europea afirma que el concepto de valorización debe ser contemplado en su triple dimensión: reutilización, reciclaje y recuperación de energía (Directiva de 30/07/96). En este sentido, ¿puede considerarse la basura como un recurso?

P 5: ¿Qué papel podemos jugar como ciudadanos y consumidores para reducir el problema de los R.S.U.?

MANUEL TOHARIA

R 1: Es un problema que deriva de un tipo de desarrollo industrial de hace un par de siglos, de crecimiento rápido, que da lugar a una civilización del desperdicio que no es eficiente ni en los modos de producción y utilización de la energía, ni en la utilización o reutilización de los productos residuales que parecen no tener valor. Ahora nos encontramos con que los residuos son excesivos: CO_2, residuos industriales o urbanos... Habría que empezar a pensar en otro tipo de desarrollo.

R 2: El problema de los R.S.U. ha alcanzado un punto álgido ahora por dos razones: la llegada del lema atroz de "usar y tirar", que nos han convencido de que es muy bueno; y en segundo lugar, por el crecimiento desmesurado de una sociedad consumista en la que se compran demasiadas cosas inútiles. Ambas cosas dan lugar a un crecimiento desmesurado de las basuras urbanas que siguen siendo gestionadas como hace un par de siglos: se coge la basura y se echa fuera, sólo que como ahora hay tanta se convierte en un problema.

R 3: Sí. Los sociólogos de la basura demuestran que a mayor nivel de vida, mayor producción de basura por habitante y día. Hemos alcanzado la cota de 1 Kg. por habitante y día y no estamos muy lejos de otros países europeos. Estamos en el selectísimo club de los países superricos, es decir,

pasa pág 12 columna dcha.

energía o agua, estamos despilfarrando algo que se puede reutilizar. La basura se tiene que depositar en algún lado y eso ha provocado vertidos incontrolados y problemas ambientales de todo tipo. A más basura, más problemas y más espacio necesario para depositarla, sobre todo en un territorio como el vasco que tiene una superficie reducida.

R 3: Es algo complicado. El aumento del consumo tiene cosas positivas y negativas. Por ejemplo, los envases de plástico tienen cosas positivas desde el punto de vista higiénico o de mayor comodidad, pero tiene aspectos negativos, porque no son biodegradables y son difíciles de reciclar, hay que separar unos de otros y hay cerca de 50 familias de plásticos. Hay que plantearse una política más ambiciosa en cuanto a la reducción en origen. Algunos envases han reducido su peso y así utilizan menos cantidad de materia prima. Sobre esta reducción en origen no hay una normativa europea, aunque en algunos países ya se está haciendo algo. Hay envases superfluos que tienen únicamente funciones de marketing y que podrían ser eliminados.

R 4: Sí, bueno, hay un problema. La basura es un residuo y por ello debe eliminarse, no tiene valor. Pero históricamente siempre ha tenido un valor. Traperos, chatarreros, chamarileros..., tenían sus circuitos autónomos de recuperación. Luego han entrado en juego otras cuestiones y, como vivimos en una economía tan globalizada, ocurren cosas como que Alemania, que tiene un grado de recuperación muy alto, no tiene capacidad de reciclaje suficiente y exporta gratis, e incluso pagando el transporte, residuos como papel o plástico, que han terminado en vertederos.

R 5: Lo primero es tomar conciencia del problema. La bolsa de la basura no desaparece cuando la dejamos en la puerta. Tiene un poder contaminante se lleve donde se lleve. De todas formas soy optimista porque los datos de participación en la recogida selectiva son interesantes y prometedores. En Bizkaia hay iniciativas y prácticas de participación ciudadana con resultados muy buenos.▲

superdespilfarradores. Hay que corregir este problema y no sólo aquí, también a nivel mundial.

R 4: Claro. Tiene (la basura) componentes orgánicos que pueden ser transformados en abono, en compost. Tiene otros elementos como plásticos, metales, etc., que pueden ser recuperados y utilizados como materia prima. Esto tiene un coste y requiere un estudio muy fino desde el punto de vista económico, ya que muchos reciclados no son rentables y, por tanto, son imposibles en una economía de mercado. Y tiene, evidentemente, mucha materia combustible que no puede ser recuperada por distintas razones y si se quema en condiciones aceptables, se pueden obtener muchas calorías que se pueden transformar en agua caliente, como se hace en muchas ciudades europeas de países muy desarrollados (Dinamarca, Alemania, Bélgica, Holanda, ...); o producir electricidad si el tamaño es suficiente. Es una forma de convertir en algo útil lo que habíamos tirado. Hay que reciclar lo que se pueda y revalorizar todo lo restante, utilizando el calor como fuente de agua caliente o de electricidad.

R 5: El ciudadano está un poco inerme, porque el marketing y la publicidad le impiden elegir lo que quiere. Por ejemplo, si quiere llevar su botella vacía para que se la rellenen en el supermercado, no puede. Los envases y embalajes tienen muchas ventajas: protegen los alimentos y tienen mejores condiciones sanitarias. Por mucho que haga el ciudadano, inevitablemente, va a seguir habiendo basura; aunque se haga un esfuerzo tremendo de educación ciudadana. Lo que hay que hacer es seguir otros ejemplos, como en Europa, y reducir las basuras, reutilizar y reciclar todo lo que se pueda y el resto incinerar para reducir su volumen y obtener calor con ello.▲

GURE INGURUA NUESTRO ENTORNO GURE INGURUA NUESTRO ENTORNO GURE INGURUA NUESTRO ENTORNO

Arriskuan dauden espezieen Euskadiko zerrenda argitaratu berri dute

LEHEN KONDENATUTA, ORAIN BABESTUTA

Euskadin diren ia ornodunen erdiak arriskuan daude. Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda argitaratu berria delarik, horixe dugu ezagutzera eman duten egoera kezkagarria.

Xabier Bañuelos

Antzina-antzinatik gizakiek Bizkaian eta Euskadi osoan egindako presioa zama astunegia izan da lurralde txiki eta mugatu honentzat. Nekazaritzak, ehizak, baso autoktonoen mozketak eta, mende honetan, industrializazioak, hazkunde demografikoak, kutsadurak eta hirien hedapenak kinka larrian jarri dute bertoko ingurune naturala. Euskadiko florak eta faunak espezie asko galdu dituzte, eta antzina gure inguruan bizi ziren animalietako asko desagertu egin dira.

Sai arrea *(Gyps fulvus)*.

Gure faunaren parte handi bat egoera larrian dago, eta horrek berandu baino lehen neurriak hartzea eskatzen du. 1994an, lehen urrats garrantzitsua eman zen: Euskal Herriko natura babesteko legea onartzea. Bigarren urratsa arestian eman dugu eta lege horren ondorio zuzena izan da: aurtengo uztailean indarrean jarri da Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda. Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailak hala eskatuta, Gasteizko gobernuak oniritzia eman zion zerrendari. Sail horrek berak, Euskal Herriko Natura Babesteko Aholku Kontseilua-Naturzaintzak eta hainbat espezialistek egin dute zerrenda.

Arrisku-kategoriak

Arriskuan dauden espezieen Euskadiko zerrendak gure lurraldean bizi diren eta, neurri handiago edo txikiago batean, bertotik desagertzeko arrisku

GURE INGURUA NUESTRO ENTORNO GURE INGURUA NUESTRO ENTORNO

larrian dauden espezieak biltzen ditu. Lehen zerrenda honetan animali espezieak bakarrik sartu dira eta, zehatzago esanda, ornodunak. Zerrendak 109 espezie biltzen ditu guztira. Hori, gaur egun, Euskadin arriskuan dauden 280 ornodun espezieen %40 da gutxi gorabehera.

Zerrendaren helburua arriskuan dauden espezieak identifikatzea eta sailkatzea da. Ondoren, abian jarriko dira zerrendan agertzen diren espezieak babesteko eta berreskuratzeko planak. Arriskuaren zenbaterainokoa kontuan izanik, lau kategoria ezarri ditu Eusko Jaurlaritzak onartutako zerrendak. Aurrena, "galtzeko arriskuan" dauden espezieak ditugu. Kategoria horretan sartzen diren espezieek oso populazio txikiak dituzte, etengabe urritzen ari dira eta, egoera horren sorburuak ezabatu ezean, ezinbestean desagertuko dira. Bigarren kategorian espezie "kalteberak" sartzen dira. Espezie horiek oso populazio urriak dituzte, baina egonkorrak dira eta, batzuetan, pitin bat ugaritu dira azken urteotan. Beste espezie batzuk ere sartzen dira kategoria horretan: haien populazioak egokiak dira gure lurraldean, baina habitata aldatzeak kalte handia egingo lieke edo, bestetik, garrantzi handiko espezieak dira peninsulako faunarentzat, endemikoak edo urriak direlako. Hirugarren kategorian espezie "bakanak" ditugu. Espezie horiek edo ale gutxi dituzte edo leku jakin batzuetan bakarrik bizi dira edo oso sakabanatuta daude eremu zabal batean, naturalak ez diren arrazoiengatik gehienetan. Azken kategorian aurkituko ditugun espezieak "interes berezikoak" dira. Gure artean instalatu diren espezie berriak edo berriro instalatu diren lehenagoko espezieen populazio txikiak sartzen dira bertan.



Buztangorri argia *(Phoenicurus phoenicurus)**



Arrano sugezalea *(Circaëtus gallicus)**

Orain, administrazioak neurri eraginkorrak hartu behar ditu legea bete dadin. Gainera, guztion lankidetza ezinbestekoa da natur ingurunea babesteko.▲

Informazio gehiago: Euskal Herriko Agitarintzaren Aldizkaria-1996ko uztailak 22, astelehena, 140 zk., 11613 horr.

* *2. eta 3. argazkiak Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailak argitaratutako EAEko ornodunak liburutik hartu ditugu. Egilea Aranzadi Zientzi Elkarteko kidea da.*

Zuk ere espezieren bat sar dezakezu zerrendan

Eusko Jaurlaritzako Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailak sartzen ditu espezieak zerrendan horrela egitea gomendatzen duen informazio tekniko edo zientifikoa dagoenean. Espezieak zerrendan sartzeko eskaera, berriz, Administrazioaren talde teknikoek eta Euskal Autonomi Elkartearen eremuan natura babestea eta aztertzea helburu duten elkarteek egin dezakete. Bigarren bide hori oso interesgarria da: aukera ematen die herritarrei natur ingurunearen kontserbazioan parte hartzeko talde eta elkarte ekologista, ingurugirozale, kontserbazionista, zientifiko eta bestelakoen bitartez. Eskabideak aztertutakoan eta horretarako aginpidea duten foru-erakundeek txosten teknikoak egin ondoren erabakiko da espeziea zerrendan sartuko den ala ez. Foru-erakunde bakoitzean zerrendaren bulego bat egongo da, izaera publikoa izango duena eta zerrendari buruzko informazio guztia bilduko duena.

REVISTA DE EDUCACIÓN AMBIENTAL

bizKaia Maitea

Tailerra 20. orr.

Zein jolas egingo dugu?
16. orr.

Cómic
pág. 18.

La musaraña enana
Pág. 19.

Pasatiempos
pág 22.

Kontaiguzu
21. orr.

abendua 96 diciembre

Zein jolas egingo dugu?

Egilea: Aimar Gabirai

Batzuetan, nagusiak oso aspergarriak izaten dira. Egizu hau, egizu bestea... Askoz hobe da jolasean ibiltzea, ordea! Tira, ba, goazen jolasera. Baina, aurrena, utzi kontatzen zer gertatu zitzaidan lagun batekin.

Zein da zure jostailurik onena?

Haren etxean geunden eta jostailu mordoa atera zuen. Ez zekien zein aukeratu. "Aizu, zein da zure jostailurik onena?" galdetu zidan. Erantzun nion: "begira, irudimena da nire jostailurik onena; berari esker, astronauta izan naiteke Martitzen, edo Indiako printzesa bat; kartoizko tutu bat sorgin txinatar baten teleskopioa izan daiteke, eta nire lehengusuaren katu siamdarra Bengalako tigre bihur daiteke".

Aukeran zer nahiago, irabazi ala galdu?



Gero, lagunen bila joan ginen eta bera umore txarre egon zen arratsalde osoan. Kontua da beti irabazi n duela, bestela ez da pozik egoten. Arranopola, hain dira ederrak, ordea, lehiarik gabeko jolasak! Hori ba lehian aritu beharra badago, lehian arituko gara den Baina argi eta garbi daukat garrantzitsuena ez dela galtzea edo irabaztea, baizik eta parte hartzea eta, batez ere, ondo pasatzea.

Bazenekien jolasean ere inguru-giroari lagundu ahal diozula?

Biharamunean, ikastolan kontatu ziguten jostailuak plastikoz eta ingurua kutsatzen duten bestelako gauzez egiten dituztela, eta gero jostailuak bota egiten ditugula eta zarama bihurtzen direla. Eta gero, gauza polit-politak egiten irakatsi ziguten. Arraioa!, zer eta zarama erabiliz! Latak, kartoizko kutxak eta horrelakoak hartu eta jostailu asko egin genituen.

KÓMIKIA
CÓMIC

Erne egon eta begira ezazu ondo zer botatzen duzuen zakar--poltsara. Ondoren, hona hemen galdera polita: zer egingo zenuke zuk ondakinen arazoa gutxitzeko zure etxetik? Bidali zeure erantzuna. Ea denon artean irtenbideak aurkitzen ditugun!

LA MUSARAÑA ENANA

La pequeña gran devoradora



De día y de noche, de aquí para allá, la musaraña, chiquita y vivaracha, caza y come sin cesar.

Autor: Aimar Gabirai

En el País Vasco existen varios tipos de musarañas pero la más curiosa es, sin duda, la musaraña enana.
Es el mamífero más pequeño que vive en nuestros campos; con cola incluida, apenas llega a medir los 10 cm. y a tener el increíble peso de... ¡7 gramos!

Es tremendamente comilona. Su alimento preferido son los insectos a los que caza sin descanso de día y de noche. A lo largo del día puede llegar a comer ¡tanto como su propio peso... o más!; imagínate, es como si una persona de 70 kg., por ejemplo, se zampara 80 kg. de comida... ¡casi nada! ¿eh?

La musaraña enana es un animal bastante común. Su vida es muy corta, no sobrepasa el año y medio. Sirve de almuerzo para la mayoría de los depredadores (lechuzas, ginetas, etc.) aunque, curiosamente, tiene tan mal sabor para zorros y gatos que, éstos, no la cazan nunca.

Freskagarri-latazko hegazkina

Nork esan du freskagarria edandakoan lata bota egin behar dela? Hiru lata gorde, eta ikusiko duzu zer egin dezakezun. Zer? Hegazkina, esaterako.



Enborra edo **fuselajea**. Lata batean zulotxoak egin hegoak, buztana, lurrartze-trena eta helizearen ardatza ipintzeko (1. irudia).

Hegoak. Beste lata bat xaflatxo luzangatan ebaki. **Buztana:** gauza bera, baina erditik tolestu xaflatxoa (2. irudia).

Gurpilak. Alanbre-zati bat sartu fuselajeko zulotxoetatik. Hurrena, bi laten ipurdia hartu eta alanbrearen alde banatan lotu. Ondoren, hegoak eta buztana muntatu (3. irudia).



Helizea. Beste lata baten goiko aldea erabiliko dugu 4. irudian bezala moztu. Xaflatxoak aurrena gorantz eta hurrena eskuinetarantz tolestu. Orain, **muntatu** egin behar dugu (5. irudia). Makila edo burdina bat izango da ardatza. Fuselajearen muturretan dauden zulotxoetatik sartu. Estu egon behar du, mugi ez dadin. Aurretik ateratzen den zatia helizearen zuloan sartu (zulo hori handixeagoa da, ondo jiratzeko). Eta, azkenik, bi goma elastikoz, topeak egin, jiratzean helizea atera ez dadin (6. irudia).

CUÉNTANOS KONTAIGUZU

Ingurugiroaren Jaia

"Argazki hau Bizkaia Maiteako adiskide on batzuek bidali digute. Ikusten denez, primeran pasatu zuten Ingurugiroaren Jaian".

➨ Libros para cuidar el planeta

